EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

2010



# FAMILIARENTZAKO TXOSTENA / INFORME PARA LA FAMILIA

## RESULTADOS DE LA EVALUACIÓN DIAGNÓSTICA 2010
## 2010EKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

### Irakasmaila / Nivel educativo
### Lehen Hezkuntza 4. maila / 4º Educación Primaria

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
ISEI·IVEI

Familia agurgarria:

Hezkuntzako Lege Organikoak (LOE) eta Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma finkatzen duen Dekretuak zehazten dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan eskolatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek garatutako konpetentzien inguruko ebaluazio diagnostikoa urtero egin behar dutela.

Ebaluazio hori 2008-09 urtean hasi eta aurreko ikasturtean, 2009-10ekoan, zuen seme-alabak parte hartu duen bigarren aplikazioa egin da. Banakako txosten honetan, hain zuzen, aplikazio horretako emaitzak aurkezten dizkizuegu.

Ebaluazio honetan, **oinarrizko konpetentziak** neurtu dira; hau da, ezagutzak modu eragingarrian aukeratzeko eta erabiltzeko ikasleek dituzten gaitasunak beren esperientzia pertsonaletik eta hezkuntza arlokotik gertu dauden egoeretan arazoak ebatzi ahal izateko.

Ebaluazio honek ikastetxeko irakasleek egindako ebaluazioa inola ere ez duela ordezkatzen gogorarazi behar dizuegu. Gainera, familientzako informazioa emateko izaera baino ez du.

2010ean ebaluatutako oinarrizko konpetentziak honako hauek izan ziren:

- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz.**
- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia gaztelaniaz.**
- **Matematikarako konpetentzia.**
- **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.**

Konpetentzia horietako bakoitzean, era berean, hiru garapen maila zehaztu dira: **hasierakoa, erdi-mailakoa eta aurreratua**. Txosten honetan eskuragarri duzun grafikoan ikusi ahal izango duzue zuen seme-alaba zer mailatan dagoen konpetentzia horietako bakoitzean. Horrez gain, txosten honetako hurrengo orrialdeetan, maila bakoitzaren esanahiaren inguruko deskribapen laburra topatuko duzue.

Zuen seme-alabaren prozesu akademikoaren inguruan eraginik ez duen arren, informazio hau interesgarria irudituko zaizuen uste osoa dut; izan ere, ikasle guztientzat komuna den **kanpoko ebaluazioa** da eta kontrol guztiak beteta egin dugu kalitatea bermatu ahal izateko.

**Hezkuntza guztion kontua da eta, zalantzarik gabe, familiek funtsezko rola betetzen dute prozesu horretan**; hori dela eta, emaitza hauek eta ikastetxeak eman diezazuekeen informazioa kontuan hartuta, eskolako emaitzak etengabe hobetu ahal izateko seme-alabari laguntza ematera eta horretara animatzera bultzatu nahi zaituztegu. Ziur dakit zuen laguntzarekin eta ikastetxeak eskain dezakeen elkarlanarekin, guztion artean, Euskadiko hezkuntza hobetzea lortuko dugula.

Isabel Celaá Diéguez

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburua

Estimada familia:

La Ley Orgánica de Educación (LOE) así como el Decreto que establece el currículo de la Educación Básica para la Comunidad Autónoma Vasca, señalan que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación debe realizar anualmente una evaluación de diagnóstico sobre las competencias desarrolladas por el alumnado de 4º de Educación Primaria y de 2º de Educación Secundaria Obligatoria escolarizado en centros escolares sostenidos por fondos públicos.

Dicha evaluación se inició el curso 2008-09 y el pasado curso 2009-10 se llevó a cabo la segunda aplicación en la que ha participado su hijo o hija, cuyos resultados les presentamos en este Informe individual.

En esta evaluación se miden **competencias básicas,** es decir, las capacidades que tienen los y las estudiantes para seleccionar y utilizar de manera eficaz sus conocimientos con el fin de resolver problemas en situaciones cercanas a su experiencia personal y educativa.

Debo recordarles que esta evaluación no sustituye, en ningún caso, a la realizada por el profesorado del centro y que tiene, exclusivamente, un carácter informativo para las familias.

Las competencias básicas evaluadas en 2010 fueron las siguientes:

- **Competencia en comunicación lingüística en euskara.**
- **Competencia en comunicación lingüística en castellano.**
- **Competencia matemática.**
- **Competencia social y ciudadana.**

En cada una de estas competencias se han fijado tres niveles de desarrollo: **Inicial, Medio y Avanzado**. En el gráfico que encontrarán en este informe podrán ver en qué nivel se encuentra su hijo o hija en cada una de estas competencias. Así mismo, en las páginas siguientes de este informe aparece una breve descripción del significado de cada nivel.

Aunque no tiene efectos sobre el proceso académico de su hijo o hija, estoy convencida de que esta información puede resultar de su interés, ya que se trata de una **evaluación externa** común a todo el alumnado y realizada con todos los controles para garantizar su calidad**.**

**La educación es cosa de todos y, sin duda, las familias tienen una función clave en este proceso**; por eso, les invito a que, teniendo en cuenta estos resultados, junto con la información que el centro les pueda transmitir, ayuden y animen a su hijo o hija para mejorar permanentemente sus resultados escolares. Estoy segura de que con su ayuda y con la colaboración que puedan ofrecer al centro conseguiremos mejorar la educación vasca.

Isabel Celaá Diéguez

Consejera de Educación, Universidades e Investigación

## Zer dakiten egiten konpetentzia mailetako bakoitzean

| MAILAK | Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: Euskaraz | Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: Gaztelaniaz |
|---|---|---|
| HASIERAKO MAILA | Maila honetako ikasleak nolabaiteko zailtasunak ditu euskarazko testuak ulertzeko. Ahozko zein idatzizko testu hurbiletan (ipuinak, elkarrizketak, ohar laburrak) datuak identifikatzeko gai da. Halaber, testu labur eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzeko gai da. Maila honetako ikasleak esaldiak edo testu laburrak idazten ditu euskaraz, baina sarritan testuak ez-egituratuak dira eta akatsak izaten ditu. | Maila honetan dagoen ikasleak nolabaiteko zailtasunak izaten ditu ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko. Testu sinple eta hurbiletan ideia nagusia antzemateko eta informazioak identifikatzeko gai da. Era berean, bere idazmen maila oraindik ere apala da; idazten dituen testuak ez daude egituraturik eta ordena falta zaie. Hiztegiaren, gramatikaren eta ortografiaren erabilera mugatua da. |
| ERDI-MAILA | Hasierako mailan deskribatutakoaz gain, erdi-mailan dagoen ikasleak zailtasunik gabe egiten ditu entzumen, irakurmen eta idazmen lanak. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da irakurri edo entzun dituen testu ezberdinetan. Gainera, ikasle honek testuaren edukia bere ideien arabera interpretatzen du, eta bere ikasmailari dagokion ohiko hiztegia antzematen du. Maila honetako ikasleak bere interesen inguruko testu sinpleak (narrazioak kasu) idazten ditu. Informazioa oinarrizko eran egituratzen du, eta bere ikasmailari dagozkion gramatika, ortografia eta lexiko arau gehienak betetzen ditu. | Maila honetan dagoen ikasleak ahozko zein idatzizko testuak –ez beti eremu ezagunekoak– egoki ulertzen ditu. Ahozko zein idatzizko testuetako informazioak identifikatzeko eta erlazionatzeko gai da. Idazmen maila egokia du bere adinerako; testuak era ordenatuan eta nolabaiteko koherentziaz idazten ditu. Hiztegiaren, gramatikaren eta ortografiaren erabilera onargarria da. |
| MAILA AURRERATUA | Hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, maila aurreratuan dagoen ikasleak lan konplexuagoak egiten ditu, eta gai da zailtasun handiagoko testuak erabiltzeko. Xedea eta eduki zehatzak identifikatzen ditu eremu ezberdinetako testuetan (familiakoak, literarioak, komunikabidetakoak). Testuak idazterakoan, maila honetako ikasleak testuaren xedea kontuan izaten du, erregistro egokia eta era askotako hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu. Gai da helburua betetzeari begira behar den informazio garrantzitsua hautatzeko, eta gramatika, ortografia eta lexiko arauak betetzen ditu. | Maila honetan dagoen ikasleak ahozko zein idatzizko testuak –ez beti eremu ezagunekoak– aise ulertzen ditu. Era ezberdinetako ahozko zein idatzizko testuetako informazioa identifikatzeko, erlazionatzeko eta interpretatzeko gai da. Idazmen maila altua du; testu ongi egituratuak eta koherentziaz idazten ditu. Hiztegiaren, gramatikaren eta ortografiaren erabilera ona da. |

## Zer dakiten egiten konpetentzia mailetako bakoitzean

| MAILAK | Matematikarako konpetentzia | Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia |
|---|---|---|
| HASIERAKO MAILA | Maila honetako ikasleak arrazoiketa landuak erabiltzen ditu problema originalak ebazteko eta oinarrizko lau eragiketetako batzuk (zatiketa barne) egitea edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten matematika egoera konplexuak ebazteko. Problema egoerak segurtasunez ebazten ditu, eta egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazten ditu. | Maila honetako ikasleak inguruko familia, gizarte, kultura, zerbitzu publiko eta erakundeen oinarrizko ezaugarri batzuk deskribatzen ditu; gainera, gizarte demokratikoaren eskubide eta betebehar batzuk identifikatzen ditu eta inguruan izaten diren kultur, eskola eta aisia jardueretan esku-hartzen du. Bestalde, beste pertsona batekin elkarrizketan jarduteko gai da, bizikidetzarako arauak ezagutu eta gatazkei irtenbideak emateko proposamenak bereizten ditu. Ikasle honek interesa agertzen du ikastetxeagatik eta berau zaintzeagatik. |
| ERDI-MAILA | Maila honetako ikasleak batuketa, kenketa edo/eta biderketa eskatzen duten problemak aise ebazten ditu. Igarkizunak eta logika eta eragiketa-arrazoiketako problema sinpleak ebazten ditu, eta baita unitate ezberdinak (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora) erabiltzea eskatzen duten problemak ere. Matematika gaien arteko loturak egiten ditu, eta horri esker nolabaiteko konplexutasuna duten problemak ebatz ditzake. | Maila honetako ikasleak, hasierako mailan adierazitako trebetasunez gain, inguruneko gertakariak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak, zientifikoak, e.a.) bereizi eta sailkatzen ditu. Pertsonen oinarrizko beharrak eta asetzen dituzten ekonomi jarduerak zein diren badaki. Gainera, udalaren funtzio nagusiak identifikatzen ditu. Gizarte parte-hartze batzuk ezagutzen ditu, bidegabekerien aurrean elkartasuna baloratzen du eta eskubide unibertsalak identifikatzen ditu. Trebea da elkarrizketan dihardutenean, akordioak lortzen ditu eta badaki negoziatzen eguneroko gatazka bati konponbidea emateko. Eskolan, familian eta aisialdirako taldeetan esku-hartzen du eta bizikidetzarako arauak proposatu eta betetzen ez diren egoerak aztertzen ditu. |
| MAILA AURRERATUA | Maila honetako ikasleak zenbakien oinarrizko ezagupenak erabiltzen ditu, eta eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu batuketa, kenketa edo biderketa erabiliz. Luzera neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Tauletako eta grafiko oso sinpleetako datuak erlazionatzeko gai da. | Maila honetako ikasleek, hasierako mailan eta erdi-mailan adierazitako trebetasunez gain, eguneroko bizitzaren alderdietan izaten diren aldaketa-prozesuak identifikatzen ditu, hainbat zerbitzu publiko erabiltzen badaki (liburutegia, kiroldegia, anbulatorioa, e.a.). Produktu batzuen jatorria, transformazioa eta merkaturatzea identifikatzeko gai da eta etxean eta etxetik kanpo egiten diren lanak baloratzen ditu. Kontsumo arduratsua ere baloratzen du. Demokraziaren funtzionamendua deskribatzen du eta eskubide unibertsalak noiz urratzen diren hautematen du. Besteren lekuan jartzen da eta beren esperientzia-eremuko gatazkei irtenbideak ematen dizkie, eta kausak eta ondorioak identifikatzen ditu. Iritziak eta nahiak argudio errazekin adierazten ditu. Ezarritako arauak errespetatzen ditu. |

## Qué saben hacer en cada uno de los niveles de competencia

| NIVELES | Competencia en comunicación lingüística en: Euskara | Competencia en comunicación lingüística en: Castellano |
|---|---|---|
| NIVEL INICIAL | El alumnado que se sitúa en el nivel inicial se maneja con cierta dificultad para comprender textos en euskara. Es capaz de identificar datos en textos orales y escritos cercanos como cuentos, conversaciones o avisos breves. Asimismo, este alumnado identifica el sentido global y las ideas principales en textos sencillos y claros. El alumnado de este nivel escribe frases o textos cortos en euskara, aunque frecuentemente los textos están poco estructurados y con errores. | El alumnado que se sitúa en este nivel inicial se maneja con cierta dificultad para comprender textos orales y escritos. Es capaz de reconocer la idea global y de identificar informaciones de textos sencillos y cercanos. Así mismo, su nivel de escritura todavía es escaso; escribe textos poco estructurados y con falta de orden. Su uso del léxico, gramática y ortografía es limitado. |
| NIVEL MEDIO | El alumnado que se sitúa en el nivel medio resuelve sin dificultad tareas de comprensión (oral y escrita) y de expresión escrita. Es capaz de diferenciar ideas principales y secundarias en distintos textos que ha escuchado o leído. Además, este alumnado interpreta el contenido en relación con sus ideas propias y reconoce el vocabulario habitual en su nivel escolar. El alumnado de este nivel escribe textos sencillos y próximos a su experiencia como narraciones. Estructura de manera básica la información y respeta gran parte de las normas de gramática, ortografía y léxico de su nivel escolar. | El alumnado que se sitúa en este nivel medio resuelve adecuadamente las tareas de comprensión oral y escrita de textos no siempre de ámbito conocido. Es capaz de identificar y relacionar información de textos orales y escritos. Su nivel de escritura es adecuado a su edad, escribe textos de forma ordenada y con cierta coherencia. Su uso del léxico, gramática y ortografía es aceptable. |
| NIVEL AVANZADO | El alumnado situado en el nivel avanzado resuelve tareas más complejas y es competente para utilizar textos de mayor dificultad. Reconoce el objetivo e identifica contenidos concretos en textos de diversos ámbitos (familiares, literarios, medios de comunicación). Además, el alumnado de este nivel, para elaborar textos escritos, tiene en cuenta la finalidad del texto, utiliza el registro adecuado y recursos lingüísticos variados. Es capaz de seleccionar la información relevante para el objetivo perseguido y respeta las normas gramaticales, de ortografía y léxico. | El alumnado que se sitúa en este nivel avanzado resuelve de forma eficaz las tareas de comprensión oral y escrita de textos no siempre de ámbito conocido. Es capaz identificar, relacionar e interpretar información de diferentes tipos de textos orales y escritos. Su nivel de escritura es alto, escribe textos bien estructurados y con coherencia. Su uso del léxico, gramática y ortografía es bueno. |

## Qué saben hacer en cada uno de los niveles de competencia

| NIVELES | Competencia matemática | Competencia social y ciudadana |
|---|---|---|
| NIVEL INICIAL | El alumnado de este nivel utiliza los conocimientos numéricos elementales y resuelve problemas muy sencillos de una operación aplicando la suma, resta o multiplicación Realiza estimaciones de medidas de longitud y reconoce diferentes posiciones en el espacio. Es capaz de asociar los datos de tablas y gráficas muy sencillas. | Se sitúa en este nivel el alumnado que es describe algunas características básicas de la familia, la sociedad, la cultura, los servicios públicos e instituciones de su entorno; además, identifica algunos derechos y deberes de la sociedad democrática y participa en su entorno en actividades culturales, escolares o de ocio. Por otro lado, es capaz de dialogar con otra persona, conoce normas de convivencia y distingue propuestas de solución a conflictos. Este alumnado se interesa por el centro escolar y su cuidado. |
| NIVEL MEDIO | El alumnado de este nivel resuelve con fluidez problemas en los que hay que utilizar operaciones de suma, resta y/o multiplicación. Soluciona acertijos y problemas sencillos de razonamiento lógico y operacional y problemas en los que emplea diferentes unidades (dinero, peso, longitud, capacidad, tiempo). Establece conexiones entre diversos temas matemáticos, lo que le facilita resolver problemas de cierta complejidad. | Se sitúa en este nivel el alumnado que, además de las destrezas descritas en el nivel inicial, diferencia y clasifica distintos hechos (económicos, sociales, culturales, políticos, científicos, etc.) del entorno. Reconoce las necesidades básicas de las personas y las actividades económicas que las satisfacen. Además, identifica las funciones principales del ayuntamiento. Reconoce algunas vías de participación social, valora la solidaridad ante las situaciones de injusticia e identifica los derechos universales. Es hábil dialogando, suele llegar a acuerdos y sabe negociar para resolver un conflicto cotidiano. Participa y propone normas de convivencia en la escuela, la familia y grupos de ocio y analiza situaciones en las que no se cumplen. |
| NIVEL AVANZADO | El alumnado de este nivel emplea razonamientos elaborados para resolver problemas originales y situaciones matemáticas complejas que implican la realización de varias de las cuatro operaciones básicas (incluida la división) o la conversión de unidades de una magnitud. Resuelve con seguridad las situaciones problema y expresa matemáticamente los cálculos realizados y la solución. | Se sitúa en este nivel el alumnado que, además de las capacidades descritas en el nivel inicial y en el nivel medio, identifica procesos de cambio en la vida cotidiana, sabe utilizar algunos servicios públicos (la biblioteca, el polideportivo, el ambulatorio, etc.), identifica el origen, transformación y comercialización de algunos productos, valora el trabajo que se realiza en el hogar y fuera de él y valora el consumo responsable. Describe el funcionamiento democrático y detecta situaciones de incumplimiento de los derechos universales. Puede llegar a ponerse en el lugar del otro y a aportar soluciones a conflictos de su entorno personal, e identifica las causas y consecuencias. Expresa sus opiniones y deseos con argumentos sencillos. Respeta las normas establecidas. |